

**ABADIÑOKO TOKIKO AGENDA 21
IRAUNKORTASUNERAKO UDAL
PROZESUA**

**II. DOKUMENTUA: IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA
PLANA**

2007 Otsaila

ABADIÑOKO TOKIKO AGENDA 21aren EKINTZA PLANAREN OSAKETAN LAGUNDU DUTEN ERAKUNDE ETA PERTSONAK

Abadiñoko Udala

Javier Uriarte Barinaga. Alkatea
Sonia Rodríguez Velasco. Alkateordea
M^a Angeles Larrauri Lasuen. Zinegotzia
Mikel Garaizabal Iturriagaetxebarria. Zinegotzia
Matías Sendino Campo. Zinegotzia
Arantza Aramburu Derteano. Zinegotzia
Jose Luis Navarro Donaire. Zinegotzia
Antonio Serrano Chamizo. Zinegotzia
Margarita Meñika Basterretxea. Zinegotzia
Jon Peli Larruskain Urigoitia. Zinegotzia
Jose Luis Pérez Pérez. Zinegotzia
Ángel Rodrigo Izquierdo. Zinegotzia
Fernando Castillo Roríguez. Zinegotzia

Kepa Larrabeiti Menika. Idazkaria
Javier Areso. Arkitektoa
Iñaki Mendizábal. Aparejadorea

Beste Administrazio eta Erakundeak

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa IHOBE A.B.
Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza eta Mendien Saila
Mendien eta Ingurumen Naturalaren Zuzendaritza
Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio saila
Errepideen Zuzendaritza Orokorra
Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Saila
Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolaketa eta Ingurumen Saila
Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
Biodibertsitate Zuzendaritza
Ingurumenaren Planifikazio, Parte-hartze eta Kontrol Zuzendaritza
Uraren Zuzendaritza
Eusko Jaurlaritza. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
Energiaren Euskal Erakundea
Iberdrola SA
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

Laguntza Teknikoa: Ingurune S.L.-Prospektiker, SA

Julen Rekondo. Teknikaria
Carlos Alonso. Teknikaria
Arkaitz San José. Teknikaria
Ibon Zugasti. Teknikaria
Olatz Errazkin. Teknikaria
Mikel Irasuegi. Teknikaria

0. AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	4
2. IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANA	5
2.1. HELBURUAK.....	5
2.2. EGITURA ETA EDUKIAK.....	6
2.2.1. EKINTZA PLANAREN EGITURA.....	6
2.2.2. EKINTZA PLANAREN EGITURA OINARRIZKO EGITURA.....	7
2.2.3. KARAKTERIZAZIO EKONOMIKOA ETA EKINTZAK BURUTZEKO ERANTZUKIZUNA.....	11
2.3. LERRO ESTRATEGIKO, PROGRAMA ETA EKINTZAN LABURPENA	12
2.4. EKINTZEN DESKRIBAPEN FITXAK.....	17
3. JARRAIPEN PLANA	74
3.1. AURKEZPENA.....	74
3.2. IRAUNKORTASUNERAKO ADIERAZLEEN SISTEMA	74
3.2.1. EZAUGARRIAK.....	74
3.2.2. HAUTATZEKO IRIZPIDEAK.....	74
3.2.3. METODOLOGIA-ERREFERENTZIAK.....	75
3.2.4. PROPOSATUTAKO ADIERAZLEEN SISTEMA.....	75
3.2.5. ADIERAZLEEN DESKRIBAPEN FITXAK.....	77

1. AURKEZPENA

Udalerriko *Ingurumen Diagnostikoa* behin eginda, Abadiñoko udalerriak aurre egin beharreko problematika eta mehatxu nagusiak zehazten dira eta baita, Tokiko Iraunkortasunerako Ekintza Plana edo Tokiko Agenda 21 osatzea bere baitan hartzen duten iraunkortasunerako irizpideak zehaztuta sortzen diren aukerak ere.

Udalerriaren Diagnostikoa abiapuntu hartuta, hemen aurkezten den dokumentuak analisi horri erantzuteko garatu beharreko helburu eta ekintza multzoa biltzen ditu. Udalerriaren garapen iraunkorragorako bidean aurreratzea da funtsezko helburua.

Proposatzen den ekintza eta jardueren helburuen multzoa Abadiñon Iraunkortasunerako Ekintza-Plana deritzonean bildu eta egituratzen dira, Udalerriaren Agenda 21 prozesuaren oinarritzko elementua.

Dokumentu honen helburua Ingurumenaren Diagnostikoaren eta jarduera helburuen arteko lotura egitea da, azken hauek lehenestea, Iraunkortasunerako Ekintza-Planeko edukien deskribapen zehatza egitea, eta ezartzeko prozesuaren jarraipena gauzatzeko Iraunkortasunerako Adierazleen Sistema aurkeztea eta deskribatzea.

Zentzu honetan, agiri honetan kontuan izandako kapituluak ondoko hauek dira:

DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA-PLANERA (2. atala)

Ondoko hauek barne hartzen ditu: Egungo egoeraren Diagnostikoa, udalerriak kontuan hartutako gaikako eremu bakoitzean dituen joerak eta, hortik aurrera, Ekintza Planean geroago islatuta agertzen diren jarduteko helburu erlazionatuen ezarpena.

IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA- PLANAREN AURRERAKINA (3. atala)

Abadiñoko Iraunkortasunerako Ekintza-planaren edukien deskribapena eta karakterizazioa barne ditu, Ildo Estrategikoen, Ekintza-programen eta Ekintzen azalpenaz zein deskribapenez, eta Planaren karakterizazio zehatzez.

EKINTZA- PLANAREN JARRAIPENAREN AURRERAKINA (4. atala)

Eskema moduan, Abadiñoko udalerriko Tokiko Agenda 21 prozesuaren segimendurako diseinatutako Iraunkortasunerako Adierazleen Sistemaren deskribapena eta karakterizazioa aurkezten da, udalerriko egoera eta Iraunkortasunerako Ekintza-planaren ezarpenerako garapen-maila urtean behin ebaluatzeko moduan.

2. IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANA

2.1. Helburuak

Iraunkortasunerako Ekintza-Planaren helburuak Iraunkortasunerako Hiri europarren Gutunean (Aalborg-eko gutunean) zehazten diren iraunkortasunerako gidari diren irizpideak jarraituz zehazten dira; eta sintetikoki horrela agertzen zaizkigu:

- Energiatzko, urrezko eta baliabide natural berriztagarrien kontsumo erritmo txikiagoa berezko ordezkatzeko sistemen gaitasunekin alderatuta.
- Baliabide ez berriztagarrien kontsumo erritmo txikiagoa baliabide berriztagarrien erritmoarekin alderatuta.
- Kutsatzaileen igorpen erritmo txikiagoa aireak, urak eta lurak eurak absorbatu eta prozesatzeko gaitasunarekin alderatuta.
- Dibertsitate biologikoaren, osasun publikoaren eta ingurumen kalitatearen mantenua bizitza eta giza ongizate soziala, baita flora eta faunarena ere, mantentzeko nahikoa mailatan.
- Justizia soziala eta biztanleriaren oinarrizko beharriaren asebetetzea.
- Herriko garapen iraunkorrean biztanleriaren eta tokiko sektoreen parte-hartzea.
- Tokiko garapen ekonomikoa.


Iraunkortasunerako irizpide orokor hauek eta udalerriko Ingurumen Diagnostikoa kontuan hartzeak udalerrarentzat ekiteko helburu zehatzak definitzera garamatza. Helburu hauetatik abiatuz, eta euren hierarkizaziotik, Planaren helburu estrategikoak eta Ildo Estrategikoak zehazten dira, Ekintza-Planaren ardatz egituratzaileak direnak.

2.2. Egitura eta edukiak

2.2.1. Ekintza Planaren Egitura

Iraunkortasunerako Ekintza-Planak egiturari **ildo estrategikoen** definizioa du oinarri, hauek osatzen dute Planak erantzun nahi dituen helburu estrategikoak.

Lerro estrategiko bakoitzak bere baitan ditu helburu zehatzak, **Ekintza Programa** gisa zehaztuak. Programa hauek zehazten dituzte **ekintza** multzo batek, hauek antolatuta daude erantzuten dioten helburu orokor eta zehatzaren arabera (ildoak eta programa), deskribapena, erakunde inplikatuak, kostu ekonomikoa eta langileena, diru-iturriak eta ezarri zaion lehentasun maila.



2.2.2. Ekintza Planaren oinarritzko ezaugarriak

Ekintzak dira Ekintza-Plana egituratzen eta definitzen duten oinarritzko unitatea, bakoitzak bere izaera du, hurrengo orrietan erakusten den moduan.

Iraunkortasunerako Ekintza-Planaren diseinuan kontuan izan den ekintza kontzeptua zabala da, bere baitan izaera oso ezberdineko ekintzak hartu ditu eta modu honetan antolatu ahalko lirateke:

- **Kudeaketa**

Iraunkortasunerako bidean aurrerapausoak egitea ahalbidetzen duten udalaren kudeaketari lotutako ekintzak.

Adibidez: azpiegitura zehatz baten ingurumen eraginaren jarraipena egin, motorren akustikaren maila kontrolatzea, udalaz gaindiko herri erakunde baten esku hartzea eskatzea.

- **Hezkuntza eta parte-hartzea**

Iraunkortasunerako hezkuntzari lotutako ekintzak eta hiritarren eta tokiko komunitateko kide ezberdinen parte-hartzea bultzatzeko balio dutenak.

Adibidez: Kanpaina hezitzaileak eskoletan, Tokiko Agenda 21en jarraipena egiteko parte-hartzeko organo bat sortzea

- **Araudia**

Ingurunearekiko eragina, ingurumenaren kudeaketa edo iraunkortasunaren norabidean arituko diren prozesuak eta jarrerak, eta ingurumen kostuen eta onuren barneratzea errazteko arauak sortu edo moldatzea.

Adibidez: Eguzkitiko energia bultzatuko duten arauak osatzea, arauak udalaz gaindiko ingurumen araudi berrienera moldatzea

- **Fiskalitatea**

Iraunkortasunaren norabidean arituko diren prozesuak eta jarrerak, eta ingurumen kostuen eta onuren barneratzea errazteko fiskalitatea moldatzea.

Adibidez: Eguzkitiko energia jasotzeko instalakuntzak gauzatzeko lanen baimenean beherapen fiskalak egitea.

- **Ekipamenduak eta azpiegiturak**

Ekipamenduen eskuratzea edo azpiegiturak gauzatea eragingo duten ekintzak.

Adibidez: Ur arazketarako eraikuntza egitea, plaka fotovoltaikoak ezartzea, bidegorriak eraikitzea

- **Iraunkortasun irizpideak barneratzea:**

Udalerrriaren kudeaketan edo Udalaren beraren funtzionamenduan ingurumen irizpideak kontuan hartzea eragingo duten ekintzak.

Adibidez: ingurumen irizpideak txertatzea hirigintza planeamenduan, udalak erositako produktuetan ingurumen irizpideak txertatzea, Udalaren funtzionamenduan jarduera egokia txertatzea

- **Azterketak**

Iraunkortasunari dagozkion problematikak, prozesuak edo eremuak hobeto baloratu eta ezagutzea ahalbidetuko duten azterketak osatzea edo Ekintza-Planak zehaztu ezin ditzakeen jarduerak bultzatuko dituzten ekintzak.

Adibidez: Errepideen inbentarioa egitea, konposterako instalakuntza baten bideragarritasunaren azterketa egitea.

EKINTZEN EZAUGARRITZEAN ERABILITAKO KONTZEPTUEN DESKRIBAPENA

KONTZEPTUA		DESKRIBAPENA
Kodigoa		Hiru zenbakik osatutako kodigoa, ildoaren, programaren eta ekintza beraren berri ematen duena.
Ekintza		Ekintzaren izenburua.
Ildoa		Ekintza kide den ildo estrategikoaren zenbakia eta izenburua. Ekintzaren helburu orokorra jasotzen du.
Programa		Ekintza kide den programaren zenbakia eta izenburua. Ekintzaren helburu zehatza jasotzen du.
Deskribapena		Ekintzaren oinarritzko definizioa eta izaera.
Exekuzio / ezarpen epea		Exekuzioa (momentuko ekintza baten kasuan) edo ezarpena (iraunkorki edo maiztasunez garatu behar den ekintza baten kasuan) egiteko gehienezko epea.
	Motza (0-1 urte)	Exekuzio / ezarpen epea motza izango dela zehazten du (0tik urte 1era).
	Ertaina (1-3 urte)	Exekuzio / ezarpen epea ertaina izango dela zehazten du (1tik 3 urtera).
	Luzea (3-5 urte)	Exekuzio / ezarpen epea luzea izango dela zehazten du (3tik 5 urtera).
Maiztasuna		Ekintzaren gauzapenerako proposatutako maiztasuna. Ekintza modu iraunkorrean gauzatu behar den kasuan "jarraitua" hitzarekin zehazten da.
Lehentasuna		Zehazten du proposatutako ekintza lehenesten den garrantzia handia duelako, ezaugarri gako batengan duelako eragina, bere ezarpena urgentea delako edo bere ezarpenak ondorio baikor ugari izango dituelako.
Aurreikusitako kostua		Ekintza exekutatu edo ezartzeko aurreikusitako kostua. Zehazten da langile gastuak kontuan hartzen diren ala ez, edo azterketa zehatza behar den baloratzeko.
Erakundeak		Ekintzaren exekuzioan edo ezarpenean esku hartzen duten erakundeak.
Finantzaketa		Ekintzaren finantzaketa ekonomikoan zerikusia duten edo izan dezaketen erakundeak.

Adierazleak	Ekintzaren zeharka edo modu zuzen batean harremanetan diren Iraunkortasunerako Adierazleen Sistemako adierazleak.
Exekuzio kontrola	Ekintzaren garapen edo ezarpen maila zehazten du.
Hasteke	Ez dira ekintzarekin lotutako jarduerak abiatu
Hasita	Ekintzaren lehen faseak bete dira (proiektuaren fasea, beste inplikatuekin harremanak hastea...)
Aurreratua	Ekintzaren lotura duten jarduerak egiten ari dira eta lehen faseak gainditu dira
Amaitzen	Kategoria hau esleitzen zaio ekintzaren exekuzio kontrolaren urtean amaitzen diren inbertsioak direnean; edo maiztasun batez edo modu jarraituan garatu beharreko ekintza exekuzioaren aurretik ezartzen hasi denean.
Amaitua	Kategoria hau esleitzen zaio exekuzio kontrolaren aurreko urtean amaitutako inbertsioak direnean; edo erreferentzia egiten dion problematika desagertu denean

2.2.3. Karakterizazio ekonomikoa eta ekintzak burutzeko erantzukizuna

Iraunkortasunerako Ekintza-Planak Udalak osorik edo zati batean finantzatutako ekintzak hartzen ditu kontuan. Esklusiboki Udalez gaindiko administrazioen eskumenekin lotutako ekintzetan, administrazio horren esku-hartzea eskatzeko Udalak egin beharreko eskariaren kostua soilik hartzen da kontuan.

Proposatzen diren ekintzen tipologia eta gai heterogeneitatearen ondorioz, kostuaren ezartze modua ere anitza da, honako kasu zehatzak zehazten dira:

- **Udaleko giza baliabideen kostua soilik duten ekintzak**

Udalan egun badauden giza baliabideen erabilpen mugatua eskatzen duten ekintzak, ez dutenak egungo kontratazio aldarazten, edo beste ekintza baten honezkero aurreikusita dagoen kontratazioa eskatzea, eta beraz kontabilitate bikoitza eragingo zuena.

Adibidez: Tokiko Agenda 21en organo eragilea sortzea

- **Kosturik gabeko ekintzak**

Dituzten ezaugarriengatik kostu ekonomiko zuzenik (edo nabaririk) eragingo ez duten ekintzak.

Adibidez: Hornitzaileen aukeraketan ingurumen irizpideak barneratzea.

- **Definitzeke**

Duten dimentsioaren eraginez proiektu teknikoa edo azterketa ekonomiko zehatza behar duten ekintzak.

Adibidez: Konposterako instalakuntza eraikitzea.

Ekintzetako bakoitzak euren finantzaketa potentzialera lotzen diren erakunde multzoa du. Erakunde ezberdinen finantzaketa lortzea Iraunkortasunerako Ekintza-Planaren kudeaketarako funtsezko eginbeharra da Udal bakoitzarentzat.

2.3 LERRO ESTRATEGIKOEN LABURPENA, PROGRAMAK ETA EKINTZAK PROGRAMEN LEHENESTEA

ABADIÑOKO TOKIKO AGENDA 21

ILDO ESTRATEGIKOAK.

ABADIÑOKO IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANA

LE 1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA

LE 2. BIZTANLERIAREN ELKARTASUNA, BERDINTASUNA ETA ONGIZATEA SUSTATU.

LE 3. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE EGIN, HIRI ESPAZIOAREN KALITATEA HOBETU

LE 4. PAISAIAREN ETA NATURAREN BALIOAK HOBETU ETA BABESTU

LE 5. UDALERRIKO INGURUMEN KALITATEA HOBETU

LE 6. UDAL KUDEAKETAN IRAUNKORTASUNA BARNERATU ETA HERRITAR PARTAIDETZA SUSTATU

**ILDO ESTRATEGIKOAK,
EKINTZA PROGRAMAK ETA
EKINTZAK**

ABADIÑOKO IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANA

LE 1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA

P 1.1. Udalerriko dibertsifikazio ekonomikoa sustatzeko programa

- 1.1.1. Industria Sektorearen aniztasuna bultzatu.
- 1.1.2. Udalerrian kalitatezko turismoa sustatzeko plana, Urkiola puntu erakargarri gisa erabiliz.
- 1.1.3. Udalerriko merkataritza sektorea bultzatzeko plana, merkataritza txikiak mantendu eta bultzatzeko helburuarekin.

P 1.2. Industriaren lharduera ekonomikoa antolatu eta kontrolatzeko programa

- 1.2.1. Zenbait industriatan ingurumen inpaktuak gutxitu eta zuzentzeko neurriak barneratu: uraren kudeaketa, hondakinen kudeaketa, zarata, airearen kutsadura,...
- 1.2.2. Enpresen ingurumen egokitzapenerako plan bat egin, informazio, formakuntza eta laguntza ekintzak izango dituen
- 1.2.3. Eusko jaurlaritzak duen Industriaren ingurumen inpaktuen inguruko informazioa bildu eta koordinatu.

P 1.3. Enplegura sarrera sustatzeko programa

- 1.3.1. Behargintzak Abadiñorako eskaintzen dituen laguntza, kurtso, lan eskaintza,... inguruko informazioa bildu eta herritarrei jakinarazi

LE 2. BIZTANLERIAREN ELKARTASUNA, BERDINTASUNA ETA ONGIZATEA SUSTATU

P 2.1. Udalerriko gizarte garapena iraunkortasun irizpideei jarraituz sustatzeko programa

- 2.2.1. Kirol ekipamenduen eskaintza zabalago bat egin.
- 2.2.2. Hirugarren adinekoek gaur egun duten egoera eta dituzten beharrak aztertzen dituen ikerketa bat egin, ekintza zehatzak proposatu eta egitea ahalbidetuko duena.
- 2.2.3. Udalerriko gazteria bere partaidetza bilatzeko asmoz erakarri. Partaidetza sustatzeko asmoz Plan bat martxan jarri.
- 2.2.4. "Abadiñoko Udaleko Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasun Udal Plana"-rekin jarraitu.
- 2.2.5. Traña-Matienan Correos-en bulego bat jartzea kudeatu edo Zelaietan dagoenari heltzea erraztu.

LE 3. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE EGIN, HIRI ESPAZIOAREN KALITATEA HOBETU

P 3.1. Hiri espazioaren kalitatea hobetzeko programa

- 3.1.1. Matienak dituen uholdekortasun arazoak konpondu, uholdekortasuna ekiditeko obrak eginez
- 3.1.2. Abadiñoko uholdekortasun arazoak konpontzean lurzoru eskaintza berria aprobetxatzea iraunkortasun irizpidez egindako hirigintza prozesu bat aurrera eramatea, egungo eta etorkizuneko biztanleriaren beharretara egokitua.
- 3.1.3. Etxebizitzan alokairua sustatzeko aukerak aztertu (Bizigune Programa), hutsik dauden etxebizitzak merkaturatu dinamizatzeko.
- 3.1.4. Bere gaurko inkilinoen beharrei egokitzen ez diren etxebizitzak zaharkituak berritzeko

<p>laguntzak eskaini.</p> <p>3.1.5. Etxebizitza berrien eraikuntzan iraunkortasun eta ingurumen hobekuntza irizpideak barneratu (bate zere babes ofizialetakoetan).</p> <p>3.1.6. Oinezko eta bizikletentzako eremuak barneratu udalerriko garapen berrietan.</p>
<p>P 3.2. Udalerriko garapen eta proiektu berrien inpaktuak aurreikusi eta gutxitzeko programa (azpiegiturak, hirigintza, industria,...)</p> <p>3.2.1. Abiadura Handiko Trenaren eraikuntza proiektuaren definizio, kontrol eta jarraipen prozesuetan partaidetza aktiboa izan: Eusko Jaurlaritzarekin negoziazio mahaia, adituen aholkularitza, ...</p> <p>3.2.2. Beasain-Abadiño korridoreko ingurumen inpaktua zuzentzeko neurriak betetzeko kontrol eta jarraipena, Abadiño udalerritik igarotzen den zatian.</p>
<p>LE 4. PAISAIAREN ETA NATURAREN BALIOAK HOBETU ETA BABESTU</p>
<p>P 4.1. Natur ingurunea babestu eta nekazal iharduera sustatzeko programa</p> <p>4.1.1 Jabego publikoa duten baso eta mendietako kudeaketa plan bat egin, bioaniztasuna eta berezko landaretza berreskuratzea zuzendua.</p> <p>4.1.2 Natur interes gehien eta produkzio balio gutxien dituzten lurzoruak hartzeko aukera aztertu, bere babesa ziurtatu eta bioaniztasuna eta paisaia mantentzeko.</p> <p>4.1.3 Azpiegitura eta Garapen Urbanistiko berrien eraikuntzan ingurumen inpaktuaren babes eta zuzenketa neurriak eta Jarraipen Planak betetzen diren egiaztatzeko Udal Kontrol Plan bat ezarri.</p> <p>4.1.4 Ibai haltzadiak berreskuratu.</p> <p>4.1.5 Tokiko nekazal produktuen balorazioa: komunikazio kanpainak, tokiko merkataritzarekin akordioak, urteroko nekazal feria bat antolatu,...</p>
<p>LE 5. UDALERRIKO INGURUMEN KALITATEA HOBETU</p>
<p>P 5.1. Garraio publikoa hobetu, mugikortasun iraunkorra eta irisgarritasuna sustatzeko programa</p> <p>5.1.1. Enpresetarako garraio publikoa erraztu eta bultzatu.</p> <p>5.1.2. Erreforma edo birgaitze obrak aprobetxatuz hiri espazioak eta egoitza publikoen sarrerak egokitu.</p> <p>5.1.3. Eraikuntza eta hirigintza garapen berrietan irisgarritasun arau legalak era zorrotzean betetzea.</p> <p>5.1.4. Udalerriko Mugikortasun Iraunkorraren planarekin jarraitu, arazo gehien dituzten eremuei arreta berezia jarritz, Traña-Matiena bezala (Trañabareen, semaforoak,...).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Saihesbideak • Errotondak • Oinekoentzako eremuak <p>5.1.5. Eskualdeko Mugikortasun Iraunkorraren Hobekuntza Plan bat egitea</p>
<p>P 5.2. Udalerriko kalitate akustikoa hobetzeko programa</p> <p>5.2.1. Udalerriko zarata mapa bat egitea.</p> <p>5.2.2. Zarata sortzen duten azpiegitura eta enpresetatik gertuenen dauden etxebizitzak zarata ez pairatzeko neurriak ezartzeko aukera aztertu.</p>
<p>P.5.3. Hondakinen kudeaketan iraunkortasun irizpideak barneratzeko programa</p> <p>5.3.1. Herritar sentsibilizazio kanpainak aurrera eramane Hiriko Hondakin Solidoen sorrera murrizteko eta pertsonengan birziklatzearen ohitura zabaltzeko.</p> <p>5.3.2. Industria jatorria duten hondakin arriskutsuen kontrola eta kudeaketa ezagutu eta hobetu,</p>

<p>udal eskumena ez den arren, IHOBE eta Eusko Jaurlaritzarekin batera.</p>
<p>P. 5. 4. Baliabide energetikoak arrazionalki erabiltzeko programa</p> <p>5.4.1. Udal eraikin eta instalazioetan goi kontsumoko eta eraginkortasun gutxiko argiteriak epeka aldatu.</p> <p>5.4.2. Argiteria publikoa epeka aldatu, eraginkorrakoak diren eta (denboran eta intentsitatean) erregulatu daitezkeen beste sistemengatik, argia alferrik ez galtzeko eta argi bidezko kutsadura ez sortzeko</p> <p>5.4.3. Udalerrian energia berriztagarriak erabiltzeko aukera bultzatu</p> <p>5.4.4. Etxebizitza berrien eraikuntzan energia aurrezte eta eraginkortasun irizpideak barneratzea (bate zere sustapen publikokoetan)</p>
<p>P. 5.5. Uraren kudeaketa integralerako programa</p> <p>5.5.1. Ur Sarearen galerak ekidin.</p> <p>5.5.2. Edateko uraren kalitatea hobetu.</p> <p>5.5.3. Ibaien emari ekologikoa mantendu.</p> <p>5.5.4. Udalerriko ur ibilguetara kontrolik gabeko isurketa galarazi.</p>
<p>P. 5.6. Udalerriko kutsadura atmosferikoaren maila murrizteko programa</p> <p>5.6.1. Eusko Jaurlaritzari airearen kalitatea neurtzeko estazio iraunkor bat ezartzeko eskatu.</p> <p>5.6.2. Emisio atmosferikoak murrizteko enpresen produkzio sistemetan hobekuntzak barneratu.</p>
<p>P. 5.7. Lurzorua kutsaduratik babesteko programa</p> <p>5.7.1. Potentzialki Poluiturik egon daitezkeen Lurzoruen Inbentarioan azaltzen diren udalerriko lurzoruetan ekiteko lehentasun ikerketa bat egin.</p>
<p>LE 6. UDAL KUDEAKETAN IRAUNKORTASUNA BARNERATU ETA HERRITAR PARTAIDETZA ETA GIZARTEA DINAMIZATU</p>
<p>P 6.1. Udal kudeaketan iraunkortasun irizpideak barneratzeko programa</p> <p>6.1.1. Kontratazio pleguetan, hornitzaileen aukeraketan eta kanpo zerbitzuen emakidan Iraunkortasun Irizpideak barneratzea.</p> <p>6.1.2. Udal produktu eta ondasunen erosketa politikan iraunkortasun irizpideak barneratu (erosketa berde publikoa).</p> <p>6.1.3. Udal iharduera edo instalazio batean EKOSCAN esperientzia bat aurrera eraman.</p> <p>6.1.4. Udalsarea 21en partaidetza aktiboa izatea.</p> <p>6.1.5. Alkateek osatutako Batzorde Politiko bat osatu eta dinamizatu.</p> <p>6.1.6. Eskualdeko garapen iraunkorrerako erreferentziazko teknikari bat kontratatzea.</p> <p>6.1.7. IHOBEk udalen zerbitzura jartzen duen MUGI 21 tresna informatikoa erabili adierazleak kalkulatzeko, eta emaitzak ezagutarazi.</p>
<p>P 6.2. Herritar partaidetza eta gizartea dinamizatzeko programa</p> <p>6.2.1. Foroa bultzatu, Tokiko Ekintza Planaren jarraipena egiteko eta erabakiak hartzeko partaidetzarako tresna bezala</p> <p>6.2.2. Tokiko Agenda 21 ezagutarazteko eta ingurumen sentsibilizaziorako ekintzak egin</p> <p>6.2.3. Udalerriko elkarteei lagundu</p> <p>6.2.4. Urtero "Aste Berdea" eta "Mugikortasun Astea" ospatzea.</p>

**EKINTZEN
DESKRIBAPEN FITXAK**

ABADIÑOKO TOKIKO AGENDA 21

1.1.1 Ekintza

Industria Sektorearen aniztasuna bultzatu

Lerroa	LE 1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA		
Programa	P 1.1. Udalerriko dibertsifikazio ekonomikoa sustatzeko programa		
Deskribapena	<p>Abadiñok, eskualdeko gainontzeko eremuak bezala, industria sendo eta aberats bat du, hein handi batean udalerriko maila ekonomikoa mantentzen duena. Industria oso espezializatu baten aurrean gaude eta sektore berdinean antolatzen dena. Egungo merkatuaren baldintzekin espezializazio hau oso loturik dago etorkizunean eman daitezkeen aldaketei, eta horregatik sektorea dibertsifikatzea abantaila eman diezaiotke merkatuaren aldaketa baten aurrean.</p> <p>Ekintza honen helburua beraz erakundeetatik udalerrian enpresa berri eta berritzaileak kokatzea sustatzea da, laguntza ekonomiko, orientazio eta estrategia berriak erabiliz.</p> <p>Hau eskualde mailan Industria Sektorearen Plan Estrategiko-Metalgiltza bidez garatzen da.</p>		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Luzea (4-5 urte)
Maiztasuna	Jarraia	Urteak	2007-2010
Aurreikusitako kostua	Euro	Ekintzaren tamainaren arabera.	
Oharrak			
Adierazleak	11.Adierazlea: Langabezi-Tasa		
Exekuzio kontrola	Hasteko zain		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa		
Finantzaketa	Abadiñoko Udala, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa		

1.1.2 Ekintza

Udalerrian kalitatezko turismoa sustatzeko plana, Urkiola puntu erakargarri gisa erabiliz

Lerroa	LE 1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA		
Programa	P 1.1. Udalerriko dibertsifikazio ekonomikoa sustatzeko programa		
Deskribapena	Abadiñok balio natural oso interesgarriak ditu, Urkiolako Parke Naturala buru duelarik, interes turistikoak erakarri ditzakeenak. Ekintza honen helburua erakargarritasun turistiko hori bultzatzea da, atzerritarrari begira baina batez ere inguruko turismoari begira, baina Abadiñok bere izaera mantentzea posible egingo duen era batera ustiatuta, azpiegiturak neurritz gaineakoak ez izanez, eta hori dena plan batean ezarriko diren helburu eta irizpide batzuei jarraituz.		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epaia/Ezartze-epaia	Laburra (0-1 urte)
Maiztasuna	Puntuala	Urteak	2007
Aurreikusitako kostua	Euro	Ekintzaren tamainaren arabera.	
Oharrak			
Adierazleak	12. Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
Exekuzio kontrola	Hasteko zain		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala, Durangaldeko Turismo Patzuergoa		
Finantzaketa	Abadiñoko Udala, Turismoarekin harremana duten establezimenduak, Durangaldeko Turismo Patzuergoa, Eusko Jaurlaritzako Industria, Kontsumo eta Turismo Kontseilaritza		

1.1.3 Ekintza

Udalerriko merkataritza sektorea bultzatzeko plana, merkataritxiak mantendu eta bultzatzeko helburuarekin

Lerroa	LE 1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA		
Programa	P 1.1. Udalerriko dibertsifikazio ekonomikoa sustatzeko programa		
Deskribapena	Udalerrian iharduera komertziala mantentzeko ekintza desberdinak martxan jartzea da ekintza honen helburua, sektorearen plan bat aurrera eramanez, Udala, udala, merkataritxiak eta eragile ekonomiko eta gizarte eragileen arteko elkarlanaren emaitza bezala.		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Laburra (0-1 urte)
Maiztasuna	Puntuala	Urteak	2007
Aurreikusitako kostua	Euro	Aztertu gabea	
Oharrak			
Adierazleak	12.Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
Exekuzio kontrola	Hasteko zain		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala, Merkataritxiak		
Finantzaketa	Abadiñoko Udala, Eusko Jaurlaritzako Industria, Kontsumo eta Turismo Kontseilaritza, Merkataritxiak, SORTULAN 2006 Programa (BFA)		

1.2.1 Ekintza

Zenbait industriatan ingurumen inpaktuak gutxitu eta zuzentzeko neurriak barneratu: uraren kudeaketa, hondakinen kudeaketa, zarata, airearen kutsadura,...

Lerroa	LE 1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA		
Programa	P 1.2. Industriaren Iharduera ekonomikoa antolatu eta kontrolatzeko programa		
Deskribapena	Industriguneetan iraunkortasun irizpideak barneratzea da helburua, hirigintza planeamenduaren bitartez edo enprekin elkarlanean: iharduerak kokatu eta arautzea, hondakinen kudeaketa, energia aurrezteak eta eraginkortasuna, ur kontsumoak, ekoizpen garbia,...		
Lehentasuna	Ertaina	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Ertaina (1-3 urte)
Maiztasuna	Jarraia	Urteak	2007-2009
Aurreikusitako kostua	Euro	Aztertu gabea	
Oharrak			
Adierazleak	5. Adierazlea: Ur Kontsumoa 6. Adierazlea: Energia Kontsumoa 7. Adierazlea: Hondakinen sorrera eta kudeaketa 8. Adierazlea: Isurketak uretara 9. Adierazlea: Udalerriko ingurumen kudeaketarako sistemak 14. Adierazlea: Atmosferaren Kutsadura		
Exekuzio kontrola	Hasteko zain		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala, IHOBE, Eusko jaurlaritzako Ingurumen saila		
Finantzaketa	Energia eraginkor erabiltzeko eta energia berriztagarriak erabiltzeko proiektuak eta ekintzak laguntzeko programa (2006) EJ.		

1.2.2 Ekintza

Enpresen ingurumen egokitzapenerako plan bat egin, informazio, formakuntza eta laguntza ekintzak izango dituen

Lerroa	LE 1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA		
Programa	P 1.2. Industriaren Iharduera ekonomikoa antolatu eta kontrolatzeko programa		
Deskribapena	<p>Industrien aldetik ingurumen-izapideak ondo burutzeko orduan baliabide falta (giza-baliabideak edota ezagutzakoak) nabarmena dagoela egiaztatzen da, espreski jarduera- eta irekitze-baimenak lortzeko lotura dutenak.</p> <p>Horregatik, kontratazio mankomunatu (partekatua) proposatzen da, ingurumen gaietan enpresei aholkua emateko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Behin betiko baimena edo irekitze-baimena lortzeko aholkularitza. • Jarduera- eta irekitze-baimena izapidetu eta lortzeko aholkularitza. • Enpresei ingurumen aholkularitza integrala ematea dagozkien ingurumen-baimen guztiak lortzeko. 		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Luzea (4-5 urte)
Maiztasuna	Puntuala	Urteak	2007-2010
Aurreikusitako kostua	Euro	Aztertu gabe	
Oharrak			
Adierazleak	12.Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
Exekuzio kontrola	Hasteko zain		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala /Empresak/IHOBE		
Finantzaketa	Empresak/IHOBE (diru laguntzak)		

1.2.3 Ekintza

Eusko jaurlaritzak duen Industriaren ingurumen inpaktuen inguruko informazioa bildu eta koordinatu

Lerroa	LE 1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA		
Programa	P 1.2. Industriaren Iharduera ekonomikoa antolatu eta kontrolatzeko programa		
Deskribapena	<p>Bere eskumenekoak diren eta Eusko Jaurlaritzak iharduera industrialaren inguruan dituen zenbait informazio hobeto jaso eta koordinatzea da ekintza honen helburua: airearen kalitatea, hondakin arriskutsuen kudeaketa, ur kontsumoak eta isurketa industrialak, poluitutako lurzorua,...</p> <p>Xedea datu horiek eta udalak berak dakiena eta kontrolatzen duena bateratzea da (iharduera lizentziaren bitartez), industriaren ihardueraren kontrol hobetzea eramateko.</p>		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Ertaina (1-3 urte)
Maiztasuna	Jarraia	Urteak	2007-2009
Aurreikusitako kostua	Euro	Kosterik gabea	
Oharrak			
Adierazleak	5. Adierazlea: Ur Kontsumoa 6. Adierazlea: Energia Kontsumoa 7. Adierazlea: Hondakinen sorrera eta kudeaketa 8. Adierazlea: Isurketak uretara 9. Adierazlea: Udalerriko ingurumen kudeaketarako sistemak 14. Adierazlea: Atmosferaren Kutsadura		
Exekuzio kontrola	Hasteko zain		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala, IHOBE/EJ		
Finantzaketa	-		

1.3.1 Ekintza

Behargintzak Abadiñorako eskaintzen dituen laguntza, kurtsu, lan eskaintza,... inguruko informazioa bildu eta herritarrei jakinarazi

Lerroa	LE 1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA		
Programa	P 1.3. Enplegura sarrera sustatzeko programa		
Deskribapena	<p>Durangoko Behargintza Durangaldeko eskualdean lana sustatzeaz eta enpresen sorrerari laguntzeaz arduratzen da, eta horregatik bertan biltzen dira lan eta enpresa munduko informazio eta ekimen guztiak. Bere zeregin nagusiak lan merkatura ailegatzea erraztea, formakuntza kurtsuak egitea, bekak kudeatzea eta lan errekurtsuak kudeatzea, beste ekimenak,... aurrera eramatea dira, eskualdeko udalerrri guztientzat.</p> <p>Ekintza honekin Behargintzak Abadiñorako aurrera eramaten dituen ekintza eta informazioen berri udalak dituen bideen bitartez ematea da, hurrengoetan arreta berezia jarritz:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Langabezia dauden pertsonentzako Teknologia berrien formazioa • Emakume langabetuentzako formazioa • Emakumea lan merkatura sartzeko sentsibilizazio ekintzak. 		
Lehenetasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Laburra (0-1 urte)
Maiztasuna	Jarraia	Urteak	2007
Aurreikusitako kostua	Euro	Kosterik gabea	
Oharrak			
Adierazleak	11.Adierazlea: Langabezi-Tasa		
Exekuzio kontrola	Hasteko zain		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala, Durangoko Behargintza		
Finantzaketa	-		

2.1.1 Ekintza

Kirol ekipamenduen eskaintza zabalago bat egin

Lerroa	LE 2. BIZTANLERIAREN ELKARTASUNA, BERDINTASUNA ETA ONGIZATEA SUSTATU		
Programa	P 2.1. Udalerriko gizarte garapena iraunkortasun irizpideei jarraituz sustatzeko programa		
Deskribapena	Ekintza honen helburua Abadiño udalerriko kirol ekipamenduen eskaintza handitzea da, udalerriak daukan errealitate geografikoa kontutan hartuz.		
Lehentasuna	Ertaina	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Luzea (4-5 urte)
Maiztasuna	Jarraia	Urteak	2007-2010
Aurreikusitako kostua	Euro	Ekintzaren tamainaren arabera	
Oharrak			
Adierazleak	1. Adierazlea: Udalerrian diren zonalde irekien eta zerbitzuen eskuragarritasuna.		
Exekuzio kontrola	Hasita		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala		
Finantzaketa	Abadiñoko Udala		

2.1.2 Ekintza

Hirugarren adinekoek gaur egun duten egoera eta dituzten beharrak aztertzen dituen ikerketa bat egin, ekintza zehatzak proposatu eta egitea ahalbidetuko duena

Lerroa	LE 2. BIZTANLERIAREN ELKARTASUNA, BERDINTASUNA ETA ONGIZATEA SUSTATU		
Programa	P 2.1. Udalerriko gizarte garapena iraunkortasun irizpideei jarraituz sustatzeko programa		
Deskribapena	Gizarte aurreratuenetan geroz eta garrantzi handiagoa dauka hirugarren adineko biztanleriak. Hala ere sektore horren barruan guztiek ez dituzte behar, gaitasun eta arazo berdinak, eta horregatik ekintza honen bitartez Abadiñoko nagusien egoera ahalik eta zehatzen ezagutzea du helburu, adin sektore honentzako hoberenak diren ekintzak proposatu eta aurrera eramateko.		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Laburra (0-1 urte)
Maiztasuna	Puntuala	Urteak	2007
Aurreikusitako kostua	Euro	12.000	
Oharrak			
Adierazleak	12.Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
Exekuzio kontrola	Hasteko zain		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala , Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa		
Finantzaketa	Abadiñoko Udala , Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa, EJ (Pertsona nagusiei zuzenduriko programentzako diru laguntzak)		

2.1.3 Ekintza

Udalerriko gazteria bere partaidetza bilatzeko asmoz erakarri. Partaidetza sustatzeko asmoz Plan bat martxan jarri.

Lerroa	LE 2. BIZTANLERIAREN ELKARTASUNA, BERDINTASUNA ETA ONGIZATEA SUSTATU		
Programa	P 2.1. Udalerriko gizarte garapena iraunkortasun irizpideei jarraituz sustatzeko programa		
Deskribapena	Udalerriko dinamikak mantentzeko funtsezkoa da gazteria aktibo bat izatea, eta horretarako beharrezkoa da gazteri aparte hartzen eroso sentituk oden espazio komunak sortzea. Ildo ezberdinetan ekintzak garatzen joatea litzateke helburua: <ul style="list-style-type: none"> • Informazioa • Aisia • ... 		
Lehentasuna	Ertaina	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Ertaina (1-3 urte)
Maiztasuna	Jarraia	Urteak	2007-2009
Aurreikusitako kostua	Euro	Aztertu gabe	
Oharrak			
Adierazleak	12.Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
Exekuzio kontrola	Hasteko zain		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala		
Finantzaketa	Abadiñoko Udala		

2.1.4 Ekintza

“Abadiñoko Udaleko Gizon eta Emakumeen arteko berdintasun Udal Plana”-rekin jarraitu.

Lerroa	LE 2. BIZTANLERIAREN ELKARTASUNA, BERDINTASUNA ETA ONGIZATEA SUSTATU		
Programa	P 2.1. Udalerriko gizarte garapena iraunkortasun irizpideei jarraituz sustatzeko programa		
Deskribapena	Emakumearen formazio, orientazio eta informazio zerbitzutik ekintza positiboko programak egitea bultzatu da. Aukera Berdintasun Plana emakumearen berdintasuna eta segurtasuna, independentzia ekonomikoa, lan baldintzak hobetzea, familia eta lan bizitza tartekatze eta bortizkeria ezabatzea bermatzeko zuzenduriko errekurtso eta ekimenen muina da.		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Laburra (0-1 urte)
Maiztasuna	Puntuala	Urteak	2007
Aurreikusitako kostua	Euro		
Oharrak			
Adierazleak	12.Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
Exekuzio kontrola	Hasita		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala		
Finantzaketa	Abadiñoko Udala, EJ		

2.1.5 Ekintza

Traña-Matienan Correos-en bulego bat jartzea kudeatu edo Zelaietan dagoenari heltzea erraztu.

Lerroa	LE 2. BIZTANLERIAREN ELKARTASUNA, BERDINTASUNA ETA ONGIZATEA SUSTATU		
Programa	P 2.1. Udalerriko gizarte garapena iraunkortasun irizpideei jarraituz sustatzeko programa		
Deskribapena	Abadiñoko Correosen bulegoa Zelaieta auzoan kokatuta dago, eta horrek udalerrak daukan egituragatik Abadiñokoa uzo populatuenetik urrun geratzea suposatzen du, Traña Matiena. Ekintza honen helburua Traña-Matiena auzoa zerbitzu honetara hurbiltzea da, gune honetan bulego bat jarritz edo izapideak egitea posible egingo duen sistemak jartzearen bitartez.		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Ertaina (1-3 urte)
Maiztasuna	Puntuala	Urteak	2007-2009
Aurreikusitako kostua	Euro	Udalarentzako kosturik gabea	
Oharrak			
Adierazleak	12.Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
Exekuzio kontrola	Hasteko zain		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala, Correos		
Finantzaketa	Correos		

3.1.1 Ekintza

Matienak dituen uholdekortasun arazoak konpondu, uholdekortasuna ekiditeko obrak eginez

Lerroa	LE 3. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE EGIN, HIRI ESPAZIOAREN KALITATEA HOBETU		
Programa	P 3.1. Hiri espazioaren kalitatea hobetzeko programa		
Deskribapena	Udalerriko zati handi bat uholdekortasun arrisku handia jasaten du, Matienako etxebizitza eta industria lurzorua hain zuzen. Horregatik Udaletik arrisku hau ezabatzea posible egingo duten ekimenak aurrera eramatea egokia ikusten da, babes eta ubideratze neurrien bitartez.		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Luzea (4-5 urte)
Maiztasuna	jarraia	Urteak	2007-2010
Aurreikusitako kostua	Euro	Kosterik gabea	
Oharrak			
Adierazleak	2. Adierazlea: Lurzoruaren erabilera Iraunkorra 17. Adierazlea: Etxebizitzaren Problematika		
Exekuzio kontrola	Hasita		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoako Udala, EJ		
Finantzaketa	Abadiñoako Udala, Programa Izartu, EJ		

3.1.2 Ekintza

Abadiñoko uholdekortasun arazoak konpontzean lurzoru eskaintza berria aprobetxatzea iraunkortasun irizpidez egindako hirigintza prozesu bat aurrera eramatea, egungo eta etorkizuneko biztanleriaren beharretara egokituia.

Lerroa	LE 3. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE EGIN, HIRI ESPAZIOAREN KALITATEA HOBETU		
Programa	P 3.1. Hiri espazioaren kalitatea hobetzeko programa		
Deskribapena	Matiena auzoan dagoen uholde arriskua ezabatuta lurzoru hauetan ekiteko aukerak handituko dira, eta horrek hiritartzea posible egingo luke. Ekintza honen helburua hirigintza prozesu hauek iraunkortasun irizpidez egitea izango litzateke.		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Luzea (4-5 urte)
Maiztasuna	jarraia	Urteak	2007-2010
Aurreikusitako kostua	Euro	Kosterik gabea	
Oharrak			
Adierazleak	2. Adierazlea: Lurzoruaren erabilera Iraunkorra 17. Adierazlea: Etxebizitzaren Problematika		
Exekuzio kontrola	Hasita		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala, EJ		
Finantzaketa	-		

3.1.3 Ekintza

**Etxebizitzen alokairua sustatzeko aukerak aztertu (Bizigune Programa),
hutsik dauden etxebizitzen merkatua dinamizatzeke**

Lerroa	LE 3. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE EGIN, HIRI ESPAZIOAREN KALITATEA HOBETU		
Programa	P 3.1. Hiri espazioaren kalitatea hobetzeko programa		
Deskribapena	<p>Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailak, Bizigune programaren bitartez, eta Visesa eta Alokabide bere agentzien bitartez etxebizitzen alokairua kudeatzeaz arduratzen da, bai bereak direnak, bai Etxebizitza sailarenak eta baita partikularrak direnak ere. Abadiñon nahiko altua da hutsik dauden etxebizitzen kopurua, hauen merkatua dinamizatzea benetan interesgarria suertatzen delarik, dagoen etxebizitzen beharra konpentsatzeko era bezala baina merkatu librean sartu gabe, dauden programak aprobetxatuz.</p> <p>Helburua Etxebide programa zabaltzea litzateke, publizitatea emanaz eta udalerrian sustatuz.</p>		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Luzea (4-5 urte)
Maiztasuna	Puntuala	Urteak	2007-2010
Aurreikusitako kostua	Euro	Udalarentzako Kosterik gabea	
Oharrak			
Adierazleak	17. Adierazlea: Etxebizitzaren Problematika		
Exekuzio kontrola	Hasita		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala, Etxebide		
Finantzaketa	Etxebide		

3.1.4 Ekintza

Bere gaurko inkilinoen beharrei egokitzen ez diren etxebizitza zaharkituak berritzeko laguntzak eskaini

Lerroa	LE 3. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE EGIN, HIRI ESPAZIOAREN KALITATEA HOBETU		
Programa	P 3.1. Hiri espazioaren kalitatea hobetzeko programa		
Deskribapena	Abadiñok hirigune historiko garrantzitsu bat dauka, eta nahiz eta orokorrean egoera onean dagoen badira eraikinak bere bizigarritasuna hobetzeko edo bere inkilinoen egungo beharretara egokitzeko obrak behar dituztenak. Segurtasuna nahiz hirigune historiko egoera onean mantentzea duen interesagatik, hirigunearen birgaitze bat aurrera eramatea udalaren lehentasunetako bat da, horretarako laguntzak emanez. Zentzu hori duten ekintza eta laguntza ezberdinak garatu dira igogailua jartzerakoan, espaloiak, ranpak,...		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Ertaina (1-3 urte)
Maiztasuna	Jarraia	Urteak	2007-2009
Aurreikusitako kostua	Euro	Aztertu gabea	
Oharrak			
Adierazleak	2. Adierazlea: Lurzoruaren erabilera Iraunkorra 17. Adierazlea: Etxebizitzaren Problematika		
Exekuzio kontrola	Hasita		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala, EJ		
Finantzaketa	Abadiñoko Udala, EJ		

3.1.5 Ekintza

Etxebizitza berrien eraikuntzan iraunkortasun eta ingurumen hobekuntza irizpideak barneratu (bate zere babes ofizialetakoetan)

Lerroa	LE 3. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE EGIN, HIRI ESPAZIOAREN KALITATEA HOBETU		
Programa	P 3.1. Hiri espazioaren kalitatea hobetzeko programa		
Deskribapena	<p>Planeamenduko eraikuntza arauetan etxebizitza berrien eraikuntzan energia aurrezpen eta eraginkortasun irizpideak barneratzea da ekintza honen helburua, batez ere sustapen publikoetan: isolamendu eta itxierak, materialen erabilera, energien erabilera, aparailuak,....</p> <p>Planifikazio hori bideratzeko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta bere Sozietate Publikoek Visesa eta Orubidek, Industria, Merkataritza eta Turismo saila EVEren bitartez eta Ingurumen eta lurralde Antolaketa sailak IHOBERen bitartez "Etxebizitzaren Eraikuntza Iraunkorrerako Gida" argitaratu berri dute, eraikinen bizitza fase guztietan iraunkortasun neurriak hartzeko.</p>		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Luzea (3-5 urte)
Maiztasuna	Puntuala	Urteak	2007-2010
Aurreikusitako kostua	Euro	Kosturik gabea	
Oharrak			
Adierazleak	2. Adierazlea: Lurzoruaren erabilera Iraunkorra 17. Adierazlea: Etxebizitzaren Problematika		
Exekuzio kontrola	Hasita		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala		
Finantzaketa	-		

3.1.6 Ekintza

Oinezko eta bizikletentzako eremuak barneratu udalerriko garapen berrietan

Lerroa	LE 3. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE EGIN, HIRI ESPAZIOAREN KALITATEA HOBETU		
Programa	P 3.1. Hiri espazioaren kalitatea hobetzeko programa		
Deskribapena	Oinezkoentzako zein bizikletentzako eremuak bizi kalitatearen ezaugarri dira. Hiri espazioari oinezkoentzako azalera irabaztea beraz hobekuntza nabaria da bizilagunentzako eta gizartearen dinamikak areagotzeko. Hala ere zaila izaten da finkaturiko eremuetan eragitea, baina ez eremu berrietan, zeinetan antolamendu egokiarekin erabilera ezberdinak ondo antolatu daitezken beraien arteko eragozpenak sortu gabe, eta horrela mugikortasun iraunkorrago bat lortu.		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Ertaina (1-3 urte)
Maiztasuna	Puntuala	Urteak	2007-2009
Aurreikusitako kostua	Euro	Kosterik gabea	
Oharrak			
Adierazleak	3. Adierazlea: Bidaiarien garraioa eta tokiko mugikortasuna 4. Adierazlea: Garraio Azpiegituretara zuzenduriko udalerriko azalera		
Exekuzio kontrola	Hasteko zain		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala		
Finantzaketa	-		

3.2.1 Ekintza

Abiadura Handiko Trenaren eraikuntza proiektuaren definizio, kontrol eta jarraipen prozesuetan partaidetza aktiboa izan: Eusko Jaurlaritzarekin negoziazio mahaia, adituen aholkularitza, ...

Lerroa	LE 3. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE EGIN, HIRI ESPAZIOAREN KALITATEA HOBETU		
Programa	P 3.2. Udalerriko garapen eta proiektu berrien inpaktuak aurreikusi eta gutxitzeko programa (azpiegiturak, hirigintza, industria,...).		
Deskribapena	Abadiño Abiadura Handiko Trenaren eraikuntzagatik kaltetutako udalerrietako bat da, eta proiektua ahalik eta gehien kontrolatzeko, bere ibilbidea eta eraginak, beharrezko ikusten da obren kontrol eta jarraipen prozesuan partehartze aktiboa izatea, eta baita proposatzen diren neurri zuzentzaileen kontrolean ere..		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Laburra (0-1 urte)
Maiztasuna	Puntuala	Urteak	2007
Aurreikusitako kostua	Euro	Aztertu gabe	
Oharrak			
Adierazleak	4. Adierazlea: Garraio Azpiegiturretara zuzenduriko udalerriko azalera 12. Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
Exekuzio kontrola	Hasita		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiño Udal		
Finantzaketa	Abadiño Udal		

3.2.2 Ekintza

Beasain-Abadiño korridoreko ingurumen inpaktua zuzentzeko neurriak betetzeko kontrol eta jarraipena, Abadiño udalerritik igarotzen den zatian

Lerroa	LE 3. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE EGIN, HIRI ESPAZIOAREN KALITATEA HOBETU		
Programa	P 3.2. Udalerriko garapen eta proiektu berrien inpaktuak aurreikusi eta gutxitzeko programa (azpiegiturak, hirigintza, industria,...).		
Deskribapena	Beasain-Abadiño korridorearen proiektuak bere gain ingurumen inpaktuaren ikerketa bat darama, zeinean azpiegitura hori eraikitzean sor daitezken eragin negatiboak zuzentzeko zenbait neurri zuzentzaile azaltzen diren, bai eraikuntza fasean zein ustiaketa fasean. Neurri hauek aurrera eramatearen arduraduna obra horiek egingo dituen enpresa bera da, eta beraz gerta daiteke neurri guztiak ez betetzea. Abadiñoko udalak neurri hauek betetzea exijitu dezake, eta horren gainean egon.		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Luzea (4-5 urte)
Maiztasuna	Puntuala	Urteak	2007-2010
Aurreikusitako kostua	Euro	Aztertu gabe	
Oharrak			
Adierazleak	4. Adierazlea: Garraio Azpiegituretara zuzenduriko udalerriko azalera 12. Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
Exekuzio kontrola	Hasteko zain		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala		
Finantzaketa	Abadiñoko Udala		

4.1.1 Ekintza

Jabego publikoa duten baso eta mendietako kudeaketa plan bat egin, bioaniztasuna eta berezko landaretza berreskuratzea zuzendua

Lerroa	LE 4. PAISAIAREN ETA NATURAREN BALIOAK HOBETU ETA BABESTU		
Programa	P 4.1. Natur ingurunea babestu eta nekazal iharduera sustatzeko programa		
Deskribapena	Jabego publikoa duten basoen kudeaketa hobetzeko lan sistema edo programa bat ezartzea litzateke ekintzaren helburua, hazkunde azkarreko espezien ustiaketa mugatzera eta berezko landaretza berreskurtzera zuzendua, Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean edo jabe pribatuekin ohitura hauek sartzen hasteko.		
Lehentasuna	Alta	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Luzea (3-5 urte)
Maiztasuna	Puntual	Urteak	2007-2010
Aurreikusitako kostua	Euro	Kosturik gabea. (Udal teknikariek erabilitako orduak ez dira kontutan hartzen).	
Oharrak	Mendien arau berria kontutan hartu behari zango da aurrera eramateko garaian.		
Adierazleak	2. Adierazlea: Lurzoruaren erabilera Iraunkorra		
Exekuzio kontrola	Hasteko zain		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala, Foral Bizkaia Foru Aldundia		
Finantzaketa	Abadiñoko Udala, Foral Bizkaia Foru Aldundia (Diru laguntzak daude)		

4.1.2 Ekintza

Natur interes gehien eta produkzio balio gutxien dituzten lurzoruak hartzeko aukera aztertu, bere babesa ziurtatu eta bioaniztasuna eta paisaia mantentzeko

Lerroa	LE 4. PAISAIAREN ETA NATURAREN BALIOAK HOBETU ETA BABESTU		
Programa	P 4.1. Natur ingurunea babestu eta nekazal iharduera sustatzeko programa		
Deskribapena	Izaera pribatua duten lurrak interes partikularrei loturik daude eta ondorioz merkatuaren baldintzapean aurkitzen dira beti. Izaera pribatua duten eta natur eta paisai aldetik garrantzi handia duten hainbat lursail daude udalerrian, zeinak etorkizunean basogintza edo hirigintzagaratik aldatuak izan daitezkeen. Ekintza honen helburua beraz natur interes gehien (berezko basoak, ibai inguruak,...) eta produkzio balio gutxien (malda handiak, azalera higakorrak,...) dituzten lurrak udalak hartzen joatea da, bere babesa ziurtatzeko eta bioaniztasuna eta paisaia mantentzeko.		
Lehentasuna	Alta	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Luzea (3-5 urte)
Maiztasuna	Jarraia	Urteak	2007-2010
Aurreikusitako kostua	Euro	Hartu nahi diren lurren arabera	
Oharrak			
Adierazleak	2. Adierazlea: Lurzoruaren erabilera Iraunkorra		
Exekuzio kontrola	Hasteko zain		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala		
Finantzaketa	Abadiñoko Udala		

4.1.3 Ekintza

Azpiegitura eta Garapen Urbanistiko berrien eraikuntzan ingurumen inpaktuaren babes eta zuzenketa neurriak eta Jarraipen Planak betetzen diren egiaztatzeke Udal Kontrol Plan bat ezarri

Lerroa	LE 4. PAISAIAREN ETA NATURAREN BALIOAK HOBETU ETA BABESTU		
Programa	P 4.1. Natur ingurunea babestu eta nekazal iharduera sustatzeko programa		
Deskribapena	<p>Azpiegitura eta Garapen Urbanistiko berrien eraikuntzan (AA.SS.,...) ingurumen inpaktuaren babes eta zuzenketa neurriak eta Jarraipen Planak betetzen diren egiaztatzeke kontrola hobetzea da ekintza honen helburua.</p> <p>Arreta berezia jarri bioaniztasuna eta paisaiaren hobekuntzari dagozkion neurrien betetzean: landare hesi eta errekupeazioa, izadiaren mugikortasuna eta istripuak,...</p>		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Luzea (4-5 urte)
Maiztasuna	Jarraia	Urteak	2007-2010
Aurreikusitako kostua	Euro	Planen araberakoa	
Oharrak			
Adierazleak	2. Adierazlea: Lurzoruaren erabilera Iraunkorra		
Exekuzio kontrola	Hasteko zain		
Jarraipen / exekuzio erantzukizuna	Abadiñoko Udala		
Finantzaketa	Abadiñoko Udala		

4.1.4 Ekintza

Ibai haltzadiak berreskuratu

Lerroa	LE 4. PAISAIAREN ETA NATURAREN BALIOAK HOBETU ETA BABESTU		
Programa	P 4.1. Natur ingurunea babestu eta nekazal iharduera sustatzeko programa		
Deskribapena	Nahiz eta betidanik ibai ertzak garbitu izan diren zikin bezala kontsideratuak izanagatik, ikusi egin da ibaiek beren balio maximoa era natural batean daudenean lortzen dutela. Horregatik Abadiñon ibai haltzadien eta ertzetako landaretzaren berreskurapen programa bat jarri nahi da martxan, beren balio natural eta ekologikoa handitu zeta baita ere udalerriko aisia gune bezala ere funtzionatuko lukeena.		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Luzea (4-5 urte)
Maiztasuna	Puntuala	Urteak	2007-2010
Aurreikusitako kostua	Euro	Hartu nahi diren lurren araberakoa	
Oharrak			
Adierazleak	2. Adierazlea: Lurzoruaren erabilera Iraunkorra		
Exekuzio kontrola	Hasteko zain		
